

5 GENERO-BERDINTASUNA

GENERO-BERDINTASUNA



HELBURUA:


Genero-berdintasuna lortzea eta emakume guztiak ahalduntzea.

5 GJH emakumeen aurkako diskriminazioa eta indarkeria mota guztien amaiera lortzeko lan eginez emakume nahiz neskato guztiak maila pertsonal eta kolektiboan ahalduntzea du helburu nagusi, berdintasun politiken garapena eta baita eragile guztien inplikazioa sustatuz.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Emakumeen egoera sozioekonomikoaren azterketa, abiapuntua zein den ezagutzeko
- Sexu identitatearen lanketa
- Emakumeen aurkako indarkeriaren datuak eta udalak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuak
- Emakumeen erabaki guneetan duten presentzia
- Udaleko parekidetasun politika

Garapen Jasangarrirako **5. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJH izango ditu lankidetzaren eremu gehien:



ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Emakumeen egoera sozioekonomikoaren azterketa



Zarautzko populazioari dagokionez, 2020an emakumezkoek biztanleriaren gehiengoaren suposatzen dute, konkretuki, %51,4a (Estatistika Erakunde Nazionala, Erroldaren berrikuspena).

Honen harira, Zarautzen emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko lana egin bada ere, zenbait **adierazle soziodemografiko** aztertuz, gaur egun oraindik desberdintasunak aipagarriak direla ikus daiteke.

GENERO-BERDINTASUNA

Emakume eta gizonezkoen desberdintasunak badu isla **lan munduan** ikus daitekeenez. Urola Kostako Udal elkarteak egoera ahulenean dauden pertsonen lan munduan txertatzeko informazioa, orientazioa eta laguntza espezializatua eskaintzen badie ere, emakumeek lan munduan duten presentzia eta pisua gizonezkoena baino txikiagoa da:

- Emakumezkoen jarduera-tasa gizonezkoena baino 4,17 puntu baxuagoa da 2020an, %47,11 eta %51,28 baitira hurrenez hurren. Hau da, biztanleria guztiaren artean lan egiten edo lan bila dagoen biztanleriaren ehunekoa, baxuagoa da emakumeen kasuan.
- Langabeziak ere neurri handiagoan eragiten die Zarauzko emakumeei, lanean aritzeko adinean dagoen biztanleriaren arabera, emakumezkoen langabeziaren tasa (%8,5) gizonezkoena (%5,9) baino 2,6 puntu altuagoa delarik 2021eko irailean.



Iturria: Lanbide

Batez-besteko denbora parte-hartzailearen, jardueren eta sexuaren arabera (oo.mm)

JARDUERA	GIPUZKOA		
	Totala	Emakumeak	Gizonak
Fisiologi beharrak	12,18	12,23	12,13
Lana eta prestakuntza	3,12	2,44	3,41
Etxeko lanak	1,57	2,32	1,19
Etxeko lagunez arduratzea	0,35	0,45	0,24
Gizarte-harremanak	0,5	0,5	0,52
Aisi aktiboa eta kirolak	1,38	1,21	1,55
Aisialdi pasiboa	2,29	2,22	2,36
Joan-etorriak	1,01	1,03	0,59

Iturria: Denbora aurrekontuen inkesta, Eustat 2018


Ordaindu gabeko lanak direla eta, Zarautzerako daturik ez badago ere, Gipuzkoako datuak aztertuz, argi ikusten da emakumeen lan erreproduktiboan duten rola eta presentzia nabarmena dela oraindik ere, gizonen egoerarekin alderatuz: nagusiki emakumeak arduratzen dira etxeko lan eta zaintzaz, jarduera horietan gizonezkoek baino denbora luzeagoa ematen dutelarik.

Normalean lan horiek ez dute ordainsaririk izaten, horrek emakumeen egoera ekonomikoan eragin zuzena duelarik.

Euskal Autonomia erkidegoko datuak antzekoak direla kontuan hartuz, gizartearen ereduaren isla dela esan daiteke eta beraz, Zarauzko egoera antzekoa izango dela baieztatu.

GENERO-BERDINTASUNA

Guzti honek eragina dauka emakumeengan, orokorrean emakumeen autonomia ekonomiko txikiagoa baita.



Emakumeen batez besteko errenta pertsonala gizonezkoena baina baxuagoa da, diferentzia hau 11.441 eurotako zelarik 2018 urtean (%38ko arraila). Aipatzeko da Erkidego mailan emakume eta gizonen arteko diferentzia hori 10.514 € dela, hau da, %39ko arraila, zeina Zarautzekoa baina txikiagoa den.

Sexu identitatearen lanketa

Sexu identitatearen arteko berdintasuna gizarte oparo eta jasangarriaren alde egiteko oinarritzko elementuetakoa bada ere, datuek azaltzen dutenez, oraindik emakume eta gizonen arteko desberdintasunak nabariak dira arlo desberdinetan.

Gaur egun emakume eta gizonen arteko desberdintasunak edo arrakala murrizteko lan ugari egiten ari den honetan, ezin da ahaztu desberdintasunak jasaten dituen LGTBI+ kolektiboa ere. Udalak ondorengo arloetan eragiten du baita ere:

- **Hezkuntzan:** urteko definitzen den hezkuntza programa orokorrean familia eredu desberdinak eta sexu eta identitate aniztasuna lantzen dira baita ere, arlo desberdinetan: indarkeriaren prebentzioarekin batera, hezkuntza afektibo sexuala,... Programa hau derrigorrezko hezkuntzako maila guztietan lantzen da (LH eta DBH) eta Batxilergoan.
- **Sentsibilizazioa:** urtean zehar hainbat sentsibilizazio ekintza eta ekitaldi antolatzen dira, egun seinalatuekin bat etorritik: martxoak 8, azaroak 25 eta maiatzak 17.

Emakumeen aurkako indarkeria eta udal baliabide eta zerbitzuak

Emakumeen aurkako indarkeria da gure gizartearen erronka nagusietako bat, zeina genero desberdintasunarekin zuzenki lotua dagoen. Indarkeria kasuak desagerraraztea da helburu nagusia.

Azken urtetako bilakaerari erreparatuz, Zarautzen identifikatu den **biktima kopuruak %19 egin du gora** azken bost urtetan (2016-2020), Udalean jasotako datuen arabera. Hala ere, kontutan hartu behar indarkeria jasaten duten pertsona askok ez dutela salaketarik jartzen eta beraz, datu erreala identifikatutakoa baino handiagoa izan daitekeela pentsa daiteke.

Datuak aztertuz, emakumeek gizonezkoak baino gutxiago salatzen dituzte jasaten duten indarkeria. 2020an Zarautzen 39 kasu identifikatu ziren emakumea biktima zutenak, horietatik 15 kasutan bakarrik jarri zelarik salaketa, hau da, %38an eta biktima gizona izan den 4 kasuetatik bakarrean ez da salaketa jarri.

GENERO-BERDINTASUNA

INDARKERIA MOTA	Biktima emakumea denean
	Salatutako kasuen %
Genero indarkeria	%43,33
Etxeko tratu txarrak	%33,33
Eraso sexualak	%25,00
Beste indarkeria batzuk	%0,00

INDARKERIA MOTA	Biktima gizona denean
	Salatutako kasuen %
Genero indarkeria	%66,37
Etxeko tratu txarrak	%100,00


Iturria: Zarauzko Udala. 2020

Jasaten den tratu txar motari dagokionez, azken urtetako bilakaerari erreparatuz, Zarautzen indarkeria fisiko eta psikologikoa da gehien detektatzen den tratu txar mota, baita psikologikoa ere.

2019ra arte indarkeria mota hauek beherazko joera bazuten ere, 2020an izan den pandemia egoerak etxean gehiago egotea ekarri du eta honek azken urtetako joera inbertitu eta 2020an tratu txar psikologiko eta fisiko/psikologikoen gorakada nabaria izatea ekarri du.

Eraso sexualei dagokionez, kezkarria da 2019an kasu kopuruen gorakada nabarmena eman izana.

Hala ere, 2021ean datu hauek zein bilakaera duten ezagutzea komenigarria litzateke, tendentzia hauek mantentzen diren edo ez baloratu ahal izateko.



Iturria: Zarauzko Udala

Biktima eta erasotzaileen **profilari** dagokionez

- **Adina** kontuan hartuz, emakume biktima gazteenak 6 eta 17 urte bitartekoak izan dira eta zaharrenak 82-69 urte bitartekoak 2016-2020 epean. Eerasotzailek aldiz, 15-19 urte bitarteko gizonak izan dira gazteenak eta 65-86 urte artekoak zaharrenak.
- **Biktima eta erasotzailearen arteko harremanari** dagokionez, 2020ko datuen arabera:
 - o Genero indarkeriaren kasuan biktimarioa bikotea izan ohi da kasuen %45,45ean biktima emakumea denean eta %9,09 biktima gizonazkoa denean.
 - o Etxeko indarkeriari dagokionez, 4 kasu bakarrik detektatu ziren 2020 urtean, 2 kasutan ama izan delarik seme edo alabaren eraso jasan duena.
 - o Sexu indarkeriarekin lotutako 4 kasuetan guztietan gizonazkoa izan da erasotzailea eta emakumea biktima, ezezagunak izan direlarik erasotzaileak, hau da, ez dago biktima eta erasotzailearen arteko harremanik.
 - o Beste indarkeria batzuk jasan dituzten 2 kasuetan gizonazko laguna edo lankidea izan da emakumezkoa erasotu duena.


GENERO-BERDINTASUNA

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egin eta honen gutxitzea sustatzeko Udalak baliabide eta zerbitzu ugari eskaintzen ditu sail desberdinen arteko lankidetzan:

- Gizarte zerbitzuak:
 - o Informazioa, arreta integrala eta baliabideen tramitazioa
 - o Laguntza psikologikoa, konfidentziala eta doakoa. Sema alabei eta familia unitate osoari zuzendutako arreta.
 - o Erasotzaileei zuzendutako laguntza psikologiko programa.
 - o Alojamentu zerbitzuak: larrialdiko apartamentuak eta harrera etxebizitzak.
- Emakumeen* Etxea /Berdintasun saila:
 - o Informazioa, aholkularitza eta deribazioa, behar denean
 - o Aholkularitza psikologikoa
 - o Aholkularitza juridikoa
 - o Emakumeentzako jabetza eskola
 - o Beste emakume batzuk ezagutu eta esperientziak partekatzeko espazioa
- Sexu Aholkularitza Gunea, non osasunarekin erlazionatutako gaiak lantzen diren, hala nola, autoestima, nortasun sexuala, emozio eta sentimenduen identifikazioa, ernalketa eta antisorkuntza metodoak, "sexu" bidezko gaixotasunak, zailtasun sexualak menopausia andropenia,... Gainera zerbitzu honek Sexulari telebista-saioa ere badauka.

Emakumeen presentzia erabaki guneetan

Botere eta erabaki guneetan emakumeek duten presentziari erreparatuz, aipagarria da Udalean emakume eta gizonezkoen aldea ez dela gizartean bezain nabaria eta azken legegaldian (2019-2022) udal korporazioa osatzen duten 21 ordezkarietik 10 emakumezkoak direla, hau da, ia %48a. Hau Udalsarea 2030eko udalerrietako batez bestekoa baina zertxobait altuagoa bada ere (%46, 2019an, *Euskal Udalerriek GJH egiten dieten ekarpena II Txostena, Ihobe*), Eusko Legebiltzarrekin alderatuz, emakumeen presentzia txikiagoa da, berau %53,3koa baita (INE, 2019).



Udal langileei dagokionez, udalen dauden 200 langiletik % 59,5 (119 langile) emakumezkoak dira.

Parekidetasun politikak

Udalerriko egoera oinarri hartuz, udalak hainbat politika garatu ditu parekidetasun gaiari heltzeko:

- 2017an **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal ordenantza** onartu zen.
- 2016an **III. Parekidetasun plana** onartu zuen, zeinak 2016-2021 urteen artean landu diren 5 lan ardatz jasotzen zituen:
 - o Gobernantza
 - o Udal barneko parekidetasun neurriak
 - o Emakumeen partaidetza eta feminismoa
 - o Hiri hezitzaile eta zaintzailea
 - o Indarkeria sexistarik gabeko hiria

Plan honen indarraldia amaituta, 2021ean egoeraren Diagnostikoa eta III planaren ebaluazioa egin da eta 2022 urteen artean zehar Udala **Zarauzko IV Parekidetasun plana** lantzen ari da.

Bestalde, **Parekidetasun kontseilua** ere existitzen da, zeinaren helburu nagusia parekidetasun politikak bultzatu eta berrikustea den.

Aipatzekoa da, baita ere, **Emakumeen* etxearen** irekiera gertaera garrantzitsua izan dela parekidetasun arloan egiten den lanari bultzada eman eta berau gizarteratzeko. Berdintasunean aurrera pausuak eman, lankidetzak sareak sortu eta feminismotik hausnartzeko espazioa izatea du helburu nagusi eta espazio berri honek, helburu hauek lortu eta herritarrengana gerturatzeko aukera errazten du.

EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Emakumeen* etxea ireki da.** Bertan zerbitzu ugari eskaintzen dira:



- Emakumeentzako Jabetze Eskola
 - Aholkularitza:
 - ✓ Aholkularitza juridikoa eta psikologikoa
 - ✓ Atzerriko ikasketen homologazioa
 - Gela eta espazioen erabilera
 - Emakume migranteentzako babesgunea
 - Liburutegia eta ordenagailu gela
- **Indarkeria matxistaren prebentzioa, berdintasuna eta hezkuntza afektibo-sexuala lantzen duen programa, ikastetxeetan**
 - Biktimei harrera hobea egiteko osatu den **“Tratu txarrak eta genero-indarkeria jasaten dituzten emakumeei lagundu eta arreta emateko erakundeen arteko protokoloa”**, zeina Zarauzko Udala, Osakidetza, Ertzaintza eta Urola Kostako Udal elkartearekin elkarlanean osatu den.
 - **ERASTOP** mugikorreko aplikazioa, zeina eraso sexistei aurre hartzea duen helburu.



ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Berdintasuna erdiesteko ezinbestekoa da pribilegioak deseraikitzea eta emakumeak* ahalbuntzea.
- Zarautzen oraindik nabaria da generoen arteko arrakala, baita arrakala ekonomikoa ere, horretan eragina izan dezakeelarik adineko pertsona kopurua altua izanik, zaintza lanetan diharduten pertsona asko dagoela eta lan hauetan nagusiki emakumezkoak direla gaur egun.
- Beharrezkotzat jotzen da Emakumeen* etxeari eta bertan antolatzen diren ekintzei bisibilitate gehiago ematea, baita gertakariei ere, jendea herrian gertatzen denaren kontziente izan dadin.
- Emakumeen* etxeak antolatzen dituen ekimenak gizonezkoei irekitzea beharrezkoa litzatekeela aipatu da, berdintasun guneak denei zabaltzea, desberdintasunak saihestea lortu ahal izateko, nahiz eta protagonismoa, ikuspegia eta antolaketa emakumeena izan.
- Garrantzitsua da neska eta mutilei txiki-txikitatik gauza berdinak erakustea, etxetik hasita.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, berdintasun arloan ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- Udalerriko **puntu beltzen mapa** egin eta hauetan hobekuntza lanak egin, ziurtasuna bermatzeko
- **LGTBI+ kolektiboaren ikuspegia eta beharrak txertatu** udal politiketan, baita eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuetan ere.
- Gizarte zerbitzuen esparrutik **indarkeria matxista egoeretan familia unitate osoarentzako arreta integrala** bermatu, ikuspegi sistematiko batetatik.